

Buruntzaldea Astigarraga

Sagardoetxea: museoa eta pedagogia

Sagardoaren etxea zabaldu du Sagardun partzuergoak



SAGARDOETXEAREN inaugurazio ekitaldia. HERNANIKO KRONIKA

Sagardoetxearen proiektua 2003ko ekainean sortu zen. Lehen pausoa sagardotegiak, kultur elkarteak eta Udala bera elkartzea, eta proiektuaren alde lanean jartzea izan zen. Ondoren, Sagardoetxe birtuala jarri zuten martxan, www.sagardun.com webgunean. Azken pauso garrantzitsua sagasti pedagogikoa eta museoa eraikitzea izan zen. Irailaren 14an inauguratu zuten Sagardoetxea.

Sagardoetxeak hiru gune dauzka elkarren artean bereizita. Bata, kultur etxe ondoko ipar hegalekoa, sagasti pedagogikoa da, eta zortzi gunez osaturik dago. Sagasti honetan, sagarraren eta sagardoaren kultura eta horrek Euskal Herriarekin duen lotura ezagutzeko, ibilbide bat proposatzen da. Sagar motak, kimatzeko sistemak, sagarrondoaren heltze prozesua, txertoak, laboreak eta beste ikus daitezke.

Azpimarragarria da hori guztia modu entretenigarrian eta di-

bertigarrian erakusten dela, sagardoaren inguruko profesionalentzat ez ezik, Euskal Herriko sagardoaren kulturara gerturatu nahi duen edonorentzako modukoa baita.

Sagasti pedagogikoz gain, museo bat ere eraiki dute, sagastiaren behealdean, espazio itxi batean. Sagardoak Euskal Herrian duen garrantzia kulturalaren iragana, oraina eta geroa aztertzea eta erakustea da gune honen helburua.

Baina, horrez gain, Euskal Herriko sagardogintzan Astigarraga herriak duen garrantzia azpimarratu nahi izan dute proiektu honen eragileek. Horretarako, panel informatiboz, material interaktiboz, argazkiz, jokoz eta bestelakoz horniturik dago museoa.

Hirugarren gunea sagardo dastatzeari eskainitakoa da, eta batez ere, txotxaren ohiturari loturikoa. Horretarako, Sagardun partzuergoko kide diren hamahiru sagardotegiek laguntzen dute, eta dastatze prozesuren

pauso guztien sekretuak azaltzen dizkiete bisitariei.

Denda bat ere zabaldu dute, museoaren aurrean, eta bertan, Sagardun partzuergoko kide diren hamahiru sagardotegietako sagardoa eta sagardoarekin loturik dauden oroigarri, dokumentazio, informazio eta promozioak eros daitezke.

Txotx garaia

Urtarrilaren 11n hasi zen, Astigarragan, 2006ko txotx garaia. Jose Luis Korta arraunlari, patroia eta entrenatzaile famatuak ireki zuen sagardo garaiko lehen upele, eta aurtengo sagardoa «ikaragarria» zetoirela esan zuen. Lehenengo txotx ofizialaren ondoren, bazkaria egin zuten Petritegi sagardotegian, eta bazkalondorenean, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak saio entretenigarri eta bizia eskaini zuten. Arratsaldean, gaztetxoentzako marrazki lehiaketa eta barrikotea izan ziren herrian.



JOSE LUIS Kortak hasi zuen Astigarragako 2006ko txotx garaia, urtarrean. HERNANIKO KRONIKA

sagardun partzuergoko kideak

Astigarragako Udalak eta hainbat elkarte eta sagardotegik dihardute partzuergoan.

Sagardotegiak. Alorrenea, Aslarbe, Bereziartua, Gartziategi, Gurutzeta, Lizeaga, Mendizabal, Mina, Petritegi, Rezola, Sazar, Zapiain eta Zelaia.

Elkarteak. Xagu Xar, Mundarro, Astigar, Norberto Musika Eskola, Gure Izarra, Goldea eta Zipotza taberna.

Udala. Astigarragako Udala arduratzen da Sagardun partzuergoko lehendakaritza lanez.